



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2019-03-14

BILERA ZENBAKIA:57

ORDUA ETA LEKUA: 18:30tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Leire, Mainer, Aiora, Jone, Marijo

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA.
2. ETXE TUTELATUAK
3. ITZIARREN ORDUTEGIA
4. AURREKONTUA
5. AUTODEFENTSA IKASTAROA
6. MARTXOAK 8 BALORAZIOA.
7. DESFRIBILADOREA.
8. GUZTION HERRIA
9. PANELAK
10. KIROLA

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA

Azken akta onartu da.

2. ETXE TUTELATUAK.

Etxebizitzen inguruan hausnarketa beharra ikusten da. Gazteentzako alokairu sozialak.

Zaharrentzako etxe tutelatuak nun etxebizitzaz gain, zerbitzuak ere eskeintzen zaizkien.

Gertuko herri batzuetan ari dira pausuak ematen bide honetan; Segura, Urretxu... Mainerrek Itziarrekin hitz egingo du herri hauetako esperientzien berri duen jakiteko.

Bestalde, honen harira, mahai gainean askotan jartzen dugun gai bat aipatu da, bolondres sare bat sortzearena. Askotan planteatzen den gai bat baino



nola heldu asmatzen ez duguna.

3. ITZIARREN ORDUTEGIA.

Itziarren lan karga dela eta, bere ordutegia luzatu nahi da. Luzapen honen kostua aurrekontuetan sartu gabe dagoenez, Udal Taldean planteatuko da. Javi hau haurrera eramateko idatzi baten zain dago.

4. AURREKONTUA.

2019 urterako Ongizateko aurrekontua honako hau da:

Gizarte langilearen larrialdietarako	4.000
Gizarte langilearen bi interbentzio	15.000
Martxoak 8	500
Azaroak 25	500
Topaketa	500
Ttipi ttpa, materiala erosi	500
Bokata jana, materiala erosi	200
Argazki erakusketa	150
TOTALA	21.350

5. AUTODEFENTSA IKASTAROA.

Espainiako gobernutik lortutako 800 euroekin Autodefentsa ikastaro bat egitea erabakitzen da. 8 ordu inguruko ikastaroa izango litzateke. Mainerrek Emaginekoekin hitz egingo du ordu horiek nola banatu adosteko.

Herrian aurretik egindako beste antzeko esperientzi bat kontuan izanda, oraingo honetan, gazteei bakarrik zuzentzea egokiagoa ikusten da. Aiorak gazteei ikastaroaren berri emango die, ikastaroa aurrera eramateko data egoki bat lotzeko.



6. M8 BALORAZIOA.

Egun honetako gure betebeharra, bertsolariena lotzea zen. Ardura bat hartzen denean, hasieratik bukaera arte aurrera eraman behar da. Zentzu honetan egon zen akatsen bat; mikrofono falta...

Bestela balorazio ona. Agian eguna iazkoaren oso antzekoa, sorpresarik gabekoa. Hurrengo urterako bertsolariak ez, beste zerbait planteatzeaz hitz egiten da. Hurrengo urtean ere ardurak Emakume taldearekin edo Kulturarekin banatzeko aukera.

Batukadakoek ere bere kexa azaldu dute, 13:00etan joan ziren plazara eta ez zegoen inor.

7. DESFIBRILADOREA.

Herrikoa ekartzen duten bitartean ordezkoa ekartzeaz hitz egiten da. 35 euro kostatuko litzateke. Desfibriladoreari buruzko informazioa zabaltzeko beharra ikusten da. Ahalik eta Jende gehienek jakin behar du nola erabiltzen den eta jakin Udaletxean dagoela bat.

Mezua zabaldu eta herritarren eskura egon behar du. Beste ikastaro bat emateko beharra ikusten da. Informazioa herritarrengana iristeko kanpaina bat egin kartelen bidez. Beste alde batetik, herriko enpresetara nola helarazi informazio hau, agian hauekin harremana zuzenago batekin egin beharko litzateke.

8. ALDIZKARIA/ ELKARRIZKETA


Ogizatetik aldizkarirako egiten zen elkarrizketarekin jarraitzea edo ez planteatzen da. Gure ikuspuntutik integraziorako bide bat bezala ikusten denez, jarraitzea erabakitzen da. Hurrengoa Mainerrek egingo du eta Aiorak euskaratu. Hortik aurrera txandakatu?

9. GUZION HERRIA- GAZTERIA

Ongizate ikuspuntutik, integrazioa bermatzea izango litzateke helburua. Eta horretarako, guztion herriaren oinarriak hori lortzeari begira ezarri beharko lirateke.

10. PANELAK

Herrian zehar errefuxiatuen argazkiak jartzeko erabili ziren panelak txukundu beharrean daude, guztiak garbitu eta margotu. Aprobetxatu hor daudela beste



gai berriren batekin erabilpena emateko.

11. KIROLA

Udaletxean gimnasio txiki bat jartzeko aukera ikusten da. Lehenengo espazioa antolatu, espazio hori erabiltzen duenekin hitz egin, ze makina mota jarri, kuota sarrera ordainduko den edo ez erabaki. Jada gimnasioa duten herri batzuekin jarri gara harremanetan hau dena nola antolatu duten jakiteko.

Aloña, yogako irakaslearekin hitz egin dugu, eta ondo iruditzen zaio. Idoiarekin ere hitz egin behar dugu, bere iritzia jakiteko eta soinketarako materiala

Erosteko ditugun 500 euro zertan erabiliko dugun adosteko. Marijok hitz egingo du berarekin.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

HURRENGO BILERA

2019ko apirilaren 11an.

Jorratuko diren gaiak:

- Aktaren onarpena.
- Etxe tutelatuak/sozialak/larrialdi etxeak.
- Besteak: